

**NERE ERRIKO EUSKERA:
"FLEXIONES VERBALES
Y LEXICON DEL EUSKERA
DIALECTAL DE EIBAR"**

Toribio Etxebarria

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos.
Año 39. Tomo XXXVI. N.º 1 (1991), p. 189-192
ISSN 0212-7016
San Sebastián: Eusko Ikaskuntza

**NERE ERRIKO EUSKERA:
"FLEXIONES VERBALES
Y LEXICON DEL EUSKERA
DIALECTAL DE EIBAR"**

Toribio Etxebarria

Erpina Aizpuri'rentzat.

Erpina

Egia esan, beti egon naiz bildurrez euskeraz idazteko. Eta uste dot ez naizela bakarria kezka onekin.

Baña orain, zenbat eta zenbait berba barri entzunda, askotan erderatik artutakoak, edo beste batzuetan ziero aldrebes ta "sintaxis" eskaxarekin idatzita, jarri naiz pentsazen, eta erabakia artuaz, emen nago eskribitzeko makiñaren aurrian... ia zer urtezen daben. Zer gaitik nik ez dot erabili biar umetan, kalian eta ebxian, ikasitako euskera?

Ontxe argitaratu da barriro eibartar jator izan zan Toribio Etxebarriaren beste liburu bat. Bere izen-burua "*Viaje por el país de los recuerdos*". Garbi ikusten dira bere sentimentu guztiak eta bere errimiña liburu onen orrietan. Oso gizon fiña ta zuzena izan zan eibartar ospetxu au.

Ba-dago beste liburubat berarena, bene-benetan ardurazkoa: "*Flexiones verbales y Lexicón del euskera dialectal de Eibar*". Bertan daren itz edo berba guztiak soraluzetarrentzat, eta baita inguruko errietarako be, baliozkuak dira. Duda barik, berba guzti oiek, gure izkuntza aberastutzen dabe uste dan baño geixago. Orregaitik Euskaltzaindiak orain lau edo bost urte ediziño barri bat argitaratu eban.

Zenbaitentzat, aspaldi batedonbatega esa-eban bezela, Deba ibarreko gu guztiok "Euskalerriko andaluzak" gara, berbak moztu edo jaten ditxugulako. Arrazoi pizka bat ba-dauke alaxe pentsazen dabenak. Ikusi bestela aldaketa au: Gipuzkoako goi-errikuak "bear degu" diñuen bitartian, guk bet-errikuok (erdi-bizkaitar askorentzat) "biou" esan da amaitu dogu. Or ziero moztu edo laburtuta esaera bat. Eta alaxe gertatzen da beste berba batzuekin be.

Baña ba-dira Deba ballarako errien artian beste zenbait gora-bera batzuk. Plaentxiatarrak "autxerrikuak" dira eibartarrentzat, eta onek "xapuerrikuak" soraluzetarrentzat. Ala diño Toribio Etxebarriak bere iztegi ikusgarrian. Zenbaitek uste dabe, autsa edo zaborrerixia egon laikelako Soraluzeko kale baztarretan. Baña ez da ori; ez dago erri ontan autsik kalietan. Izatekotan, beste edozein erri izan laikian beste. Gaitz-izen ori dator "autxa" esaten dalako "autsa" esan biarrin.

Auskalo noiztik etor laiketzen orrek kirmirrixok, zer gaitik eze Eibarren bertan be badago berba batzuekin oitura bardifia: "atxa" eta "gatxa" esaten dabe "aitza" eta "gaitza"ren lekuan. Pekatu ori, izatekotan, danena dirudi.

Jarri biarra dago idazkera ontan, erri batetik bestera, berbuen amaieretan alde batzuk badarela. Ta ez berbuetan bakarrik, baitzik erri bakoitzeko itz edo berba batzuekin be bai. Adibidez: Soraluzen bizkar-sorroari "galtzarbasaria" esate jako; "gantxirrikak" txarriaren zati prijituak dira, koipiak kenduta gelditzendiranak; "gañigarrak", arboletan izaten diran arrama edo abar sikuak; "urakapiñak" (ur-akatzpillak) ibai baztarrian ufalak (riadas) lagatzen dituan egur sikuak, onak benetan sutarako; "fiua" fabriketako sirena edo txistu-deiari esate jako Soralu-

zen... Orra or itz banaka batzuk geienak ezezagunak Soraluzetik kanpo. Etxebarriak, beintzat, ez daukaz jasota bere iztegian.

Nik neuk, sekula ez dot H'rik erabili. Ez neuke, gañera, jakingo nun jarri itz bakoitzian. Ortarako, oraingo euskeraren gramatika artu eta ikasi biarko nuke. Ez daukat sasoirik orain ortan azteko. Baña, beste aldetik, jabetze naiz derriorrekua dala idazkera bardintzea, erderaz gertatzen dan bezela, naiz da bakoitzak berbetan bere oiturak edo moduak erabili. Uste dot, bide ortatik eta euskeraz asko irakorrita etorri leikela danontzat alkarren ezaguera eta berbetarako aberastasuna.

Premiña dago, aundia gañera, azentua saintzeko. Arritxuta gelditzen naiz ni sarri kalietan entzulendiran jardunekin... erderazko doñuarekin. Oso itxusixa da ori. Ikastoletako zenbait umek, telebista eta irratietako aurkeslariak eta abar, utsune au erakusten dabilz egunero. Ikusi, bestela, zer gertau dan Donostia beraren izenakin. Arrazoi onek garbi adierazten dau ez dala biardan bezela saintzen alde ortatik gure izkuntza. Idaztia, ondo idaztia; garrantzizkua da, baña bai azentua saintzia be.

Eta bere aberastasanari buruz, beti gogoratze naiz gertaera onekin: Egun baten, eskatu notzazen "artzatixak" (tijeras) nere bulego edo ofizinako lagunari, donostiarra bera, eta auxe izan zan bere erantzuna:

— "Guraitzak" izango dira...

Baña momentu artantxe sartu zan napar bat eta, lengo izen biyak entzun da gero, esaban:

— Ta zer gaitik ez "aizturak"?

Or iru izen, danak jatorrak euskerarentzat. Ez ote da biderik onena euskera aberasteko orrek danak jakin eta erabiltzea?

Ramiro Larrañaga
Donostian, 1990 Azaroa

